



Soziolinguistika albistaria

23. zenbakia
2017ko urriak 6 – urriak 19

Soziolinguistika Klusterreko albistek

Soziolinguistika albistaria: balorazio galdetegia

Soziolinguistika Albistaria sortu zenetik 23 zenbakia da honakoa. Harpidedunen aldetik albistariaren eduki eta formatuen inguruko ekarpenak jasotzeko unea dela iruditzen zaigu. Biziki eskertuko genizuke galdetegi labur eta arin hau erantzunez zure iritzia helaraztea.

Euskararen arnaguneen eta udalerrri euskaldunen erronkak aztertuko dituzte UEMA eta Soziolinguistika Klusterrak antolatutako jardunaldian

Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren IX. edizioa aurkeztu da, Donostian. Aurtengoan, UEMAk eta Soziolinguistika Klusterrak elkarlanean antolatu dute azaroaren 22an Carlos Santamaria Zentroan (EHU) gauzatuko den egitaraua.

BAT Soziolinguistika Aldizkaria EBSCO nazioarteko sare akademikoan

EBSCO Publishing eduki akademikoa duten aldizkarien eta ikertzaile zientifikoentzat datu-base zabalak dituen nazioarteko sare garrantzizkoa da. Soziolinguistika Klusterrak hitzarmena sinatu berri du BAT aldizkariaren edukia haren bitartez ere zabaltzeko.

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren aurkezpenak

Pasa den uztaillean Euskal Herri mailako emaitzak eman ziren jakitera eta ondoren EHUren Uda Ikastaroen testuinguruan interpretaziorako eta eztabaidarako aukera egon zen. Orain aurkezpen espezifikagoen txanda heldu da.

- **Urriaren 16an, Iruñeko Udalan antolatuta Iruñeko Hizkuntzen Kale Neurketaren emaitzak aurkeztu dira.**
- **Eta Urriaren 18an, Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean aurkeztu dira datuak.**

Ikerketak

Bermeo eta Ondarroako kasuetatik abiatuz hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak sakon aztertu ditu UEMAK

(UEMA) Euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea zerk eragiten duen aztertu dute UEMAKo teknikari Goizane Aranak eta Eneritz Albizuk. Atzo aurkeztu zuten 'Bermeo eta Ondarroa, hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak' ikerketa mardula.

Language equality in the digital age - Towards a Human Language Project

(Europako Parlamentua) The Scientific Foresight Unit within the Directorate-General for Parliamentary research Services of the European Parliament has recently published a study which is of great interest to the Charter in terms of its current reflection on the impact...

Jardunaldiak, hitzaldiak eta Ikastaroak

Conference "The Current Challenges for Minority Languages in today's complex societies"

(NPLD) To be held in Brussels on 9th November 2017 and coorganised by NPLD and Centre Maurits Coppieters, this high-level conference will tackle the relationship between regional and minority languages in Europe and migration, economy and education.

Communities in Control. Learning tools and strategies for multilingual endangered language communities Conference in Portugal

(Mercator) The Mercator Research Centre, SOAS World Languages Institute, the Interdisciplinary Centre for Social and Language Documentation and the Foundation for Endangered Languages cordially invite scholars, community organisations and community members working on...

Linguapax 30 years: conference on languages and spiritual traditions in Barcelona

(Linguapax) Linguapax gathers together several speakers to explore the relationship between spiritual traditions and language – how religious diversity channels different linguistic perspectives. 24 Nov 2017.

Liburuak eta argitalpenak¹

Journal of Multilingual and Multicultural Development aldizkariaren zenbaki berria

(HABE liburutegia) Hizkuntzaren soziologia eta gizarte-psikologiaren esparrua, hizkuntza-politika, hizkuntza-plangintza eta praktikak, besteak beste, jorratzen dituen aldizkari akademiko honen 10. zenbakia argitaratu da. Jasotzen dituen artikuluen artean, Euskal Herriko Cenoz eta Gorter ikerlarien lan hau dago:

- CENOZ, J & GORTER, D. "Minority languages and sustainable translanguaging: threat or opportunity?"

HABE liburutegiaren eskuratu berriak

- KLINKENBERG, JM (2017) La langue dans la cité
- BORJIAN, M (2017) Language and Globalization

¹Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [**HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)**](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelakoak

Aktibazio ekimenak martxan Euskal Herri osoan zehar

- Topagunearen mintegia: **Abian da erronka, herrietako batzordeak lanean**
- Lizarra: **"Ahobiziak" eta "Belarriprestak" Lizarran (ARGIA)**
- Aiaraldea: **6.000 aiaraldearren aho eta belarriak aktibatu nahi dituzte euskararen alde (ARGIA)**
- Baiona, Angelu, Miarritze: **Zazpi egunez euskaraz bizitzeko ekimena jarriko dute martxan Baionan, Angelun eta Miarritzen (ARGIA)**
- Altza: **Zer da Altza hadi 21 egun euskaraz?**
- Intxaurren: **Baietz 20 egun euskaraz Intxaurren (azaroaren 12tik abenduaren 2ra)**

Kaxubierazko lehen eskolei buruzko erreportajea Berrian

(Berria) Biziberritze baten lekuko. Hiru urte dira kaxubiarrek eta euskaldunek elkar ezagutu zutela. Orain, kaxubieraz irakasteko lehen eskola ireki dute haiek, Euskal Herriko ereduari begira.

